

Antxiñako fotografixia



Mende honen hasierako bolua

Zein oñatiar ezta ibilli umetan lurrian bueltaka atxilipurdika, Aldameneko neskatilla edo mutikuekin burrukan, aittapuntakuak boluan botatako txanponak harrapo guran? Jai-xobarririk bautizau ondoren, dirua botateko ohitturiori mende honen hasieran be indartsu eguela ikusi geinke fotografixa honetan: orduan xemeikuak edo txakurtxikixak izango ziran, geruago txakurhaundixak eta errielak, erriel bikuak eta pezetak beranduago, eta azkenengo urte

honeittan txapon potoluaguak be bai.

Ez pentsau ospakizun hau edozein modutakua zanik Oñatin. **Txomin Agirre** nobelagilliak ederki asko kontauta itxi oskun **Garoa** liburuko laugarren kapituluhan zelakua izan zan Zabaletako Malentxoren bolua. **Bolo** berbiaren jatorrixa be argiketan dosku nobela horretan: **¿Vis baptizari?** preguntaitten eben latinez abadiak, hau da, "bautizau gura dozu?", eta erantzuten xakon **voló**, hau da, "bai, gura dot". Latiñok ezkutau dira

elizan, baiña ohitturiki eta berbiak sendo jarraiketan daue gure artian; **Garoa** nobelia moldau zan garaixan letxe, edota **Martin Zuluetak** argazki hau, zaldikotxe eta guzti, atara eben denboran moduan. Bixak orain dala 85-90 bat urte, hain zuzen.

J.E.

Maria Angeles Zuluetak
itxittako argazkixa.

Juanitosa

Atzeko kale, 11
Kale Barria, 24
Tfnoa: 78 04 62 OÑATI

SALTOKI



ARKAUZ
OPTIKA

Optiko-Optometrista
Lazarraga, 2. Oñati
Tfnoa: 71 60 63

ONDO IKUSTEN
BADUZU. HOBE
IKASIKO DUZU.
ZAINDU ZURE
BEGIAK